

## TOKI ADMINISTRAZIOA

## 3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA**

*Urola Kostako Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) hiri hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari hasierako onarpena ematea.*

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2021eko urriaren 25ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman dio Udal Elkartearen osatzen duten udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia) hiri hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari.

Beraz, orain, erabaki hori eta dagokion espedientearen jendaurrean erakusgai jarri dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Gipuzkoan hedapen handiena duen egunkari batean eta Urola Kostako Udal Elkartearen iragarkien taulan iragarkiak argitara emanaz, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren, (Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenaren) 16.1 artikulua, xedatutakoa betetzeko. Erabakia eta espedientearen honako hauen arabera jarri dira jendaurrean:

a) *Espedientearen erakusgai dagoen lekua:* Urola Kostako Udal Elkarteko Idazkaritza Kontu-hartzaitza (Urdaneta bidea 6, Zarautz).

b) *Agiriak aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita, bulego-ordutegian.

c) *Erreklamatzeko legitimatuta daudenak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17. artikulua aipatzen dituenak.

d) *Erreklamazioak aurkezteko lekua:* Urola Kostako Udal Elkarteko erregistro orokorrean, edota edota 39/15 Administrazio-ko Prozeduraren Legeak 16.4 artikuluan jartzen dituen tokietan.

e) *Erreklamazioaren organo hartzailea:* Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordea.

Erabakia eta espedientearen jendaurrean erakusgai jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, hartutako erabakia behin betiko bilakatuko da, beste erabakirik gabe.

Zarautz, 2021eko urriaren 25a.—Lourdes Salsamendi Goñi, Udal Elkarteko lehendakaria. (6889)

**MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA**

*Aprobación inicial a la modificación de la ordenanza reguladora de la tasa por la prestación del servicio de recogida y tratamiento de residuos urbanos en los municipios que integran la Mancomunidad Urola Kosta (Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia).*

La Comisión Ejecutiva de esta Mancomunidad Urola Kosta, en sesión ordinaria celebrada el 25 de octubre de 2021, aprobó inicialmente la modificación de la ordenanza fiscal, reguladora de la tasa por la prestación del servicio de recogida y tratamiento de residuos urbanos en los municipios que comprenden la Mancomunidad Urola Kosta (Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaia).

El acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido se someten a información pública, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de la Mancomunidad Urola Kosta, así como en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa conforme a las siguientes reglas:

a) *Lugar donde se halla de manifiesto:* En la Secretaría-Intervención de la Mancomunidad Urola Kosta (Urdaneta bidea 6, Zarautz).

b) *Plazo de examen y en su caso, formular reclamaciones:* 30 días hábiles, contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) *Legitimados para reclamar:* Los que relaciona el art. 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) *Lugar de presentación:* En el Registro General de la Mancomunidad Urola Kosta. También podrán presentarse en los lugares que señala el art. 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común.

e) *Órgano ante el que se recurre:* Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrá por definitivo el acuerdo adoptado sin necesidad de nuevo acuerdo.

Zarautz, a 25 de octubre de 2021.—La presidente de la Mancomunidad, Lourdes Salsamendi Goñi. (6889)